

# EAE eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren balioespena

*Mikel Noval*

*Julene Gabiola*

*ELAko Azterketa Bulegoa*



# EAE ETA NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREN BALIOESPENA

## ELAko Azterketa Bulegoa

<b>0. AURKEZPENA .....</b>	<b>3</b>
<b>1. EUSKO JAURLARITZAREN 2003 RAKO AURREKONTUEN AZTERKETA: IZAN EZ DEN EZTABAIDA.....</b>	<b>4</b>
0. Sarrera: Aurrekontuen garrantzia eta errealitatea .....	4
1. EAEko aurrekontuetatik kanpo geratu dena .....	4
2. Sarrerak: aldundien ekarpena eta gobernuaren zor jaulkipena .....	6
3. 2003ko Aurrekontuak: Eusko Jaurlaritzaren gastuaren ikuspegi orokorra .....	8
4. Osasuneko Gastu Publikoa .....	10
5. Hezkuntzako Gastu Publikoa .....	10
6. Oinarrizko errenta .....	11
7. Etxebizitza gastua .....	11
8. Industria eta Energi politika .....	12
9. Garraioak eta Herri lanak .....	13
10. Pertsonalari buruzko politika .....	14
11. Ondorioztapenak .....	14
<b>2. 2003RAKO NAFARROARAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUAREN BALIOESPENA.....</b>	<b>18</b>
0. Sarrera .....	18
1. 2003rako Aurrekontu Proiektua .....	18
2. Sarrerak. Zergei buruzko politika .....	19
3. Ekonomia eta Ogasun Saila. Ekonomi Hitzarmena .....	21
4. Osauneko Gastu Publikoa .....	21
5. Hezkuntza eta Kulturako Gastu Publikoa .....	22
6. Etxebizitzako Gastu Publikoa .....	23
7. Oinarrizko Errenta .....	24
8. Konklusioa .....	24

Aurten ere, aurreko urteetan gertatu izan den bezala, abenduan aurrekontuak onartu-ez onartu tirabira izan dugu bai Elkarte Autonomo eta bai Nafarroako Legebiltzarreko gobernukide eta oposizioko kideen artean. Legebiltzarraren eginkizun "garrantzitsuena" den hau, zeresan asko ematen ari da azken urteotan. Hala ere, beste gai askotan gertatzen den legez, alderdi eta interes ezberdinen arteko rafi-rafeek estali egiten dute aurrekontuen benetako edukia, eta baita beronen atzean dauden benetako interesak ere. Aurrekontuen edukia garrantzitsua den arren, ez da jadanik arrazonamendu logikoz eta gizartea hobetzeko helburuz eztabaidatzen. Aitzitik, alderdien joko politikoaren atal huts bihurtu da.

Aurrekontuen edukia funtsezko gaia da, edozein gobernuak garatu nahi duen gizarte eredia islatzen duelako. ELAren iritziz, ezinbestekoa da gobernuak horrenbesteko garrantzia duen gai honetan izan duten jokabidea aztertu eta baloratzea, azken baten, aurrekontuek zuzeneko eragina baitute biztanle gehientsuen bizi-baldintzetan (hezkuntza, osasuna, etxebizitza politika, oinarritzko errenta,...). Hauxe da txosten honen helburua.

Kontutan izan behar da dena den, aurrekontuen edukiaren azterketa bera ere ez dela errealitatean gertatzen denaren egia fidela. Alde batetik diru-hornidura ezberdinek urtean zehar izaten dituzten aldaketak daude. Bestetik, euskal instituzioek azken urteetan bultzaturiko zerga-arintzeen politika dago, zerga bilketaren murrizketa garrantzitsu dutenak ondorio gisa. Zerga-arinketok, alde batetik, errenta altuei gehiago mesedetzen die baxuei baino, eta bestetik, biltzen ez den kantitate hori gastu soziala handitzeko erabili ahalko litzake. Gobernuak ekonomian duten pisua jaiste delako helburua argi uzten ari dira Hego Euskal Herriko Instituzioak, baina era honetako hausnarketak, tamalez, aurrekontuez hitz egitean iritzi publikoan agertzen diren gertakarien atzean ezkutatuta gelditzen dira.

# EUSKO JAURLARITZAREN 2003rako AURREKONTUEN AZTERKETA: IZAN EZ DEN EZTABAIDA

---

## **0. SARRERA: AURREKONTUEN GARRANTZIA ETA ERREALITATEA**

Eusko Jaurlaritzak 2003rako aurkeztutako aurrekontuak modu harrigarrian onartu ziren Eusko Legebiltzarrean joan den abenduaren 27an, Jaurlaritzaren aldeko taldeak gutxiengo baziren ere (36 boz, oposizioaren 39en aurka), eta oposizioak, aldez aurretik, aurrekontuak arbuiatzeko asmoa argi utzi zuen arren.

Paradoxazko egoera hori hainbat ustekabek eta oposizioko taldeen jardun deitoragarriak ekarri zuten, bai eta Jaurlaritzari aurrekontuen gaian garaipena eman ere, beste urtebetez aurrekontuak onartu gabe segitu behar izatea saihestu ahal izan duelako. Onartutako azken aurrekontuak 2000koak ziren, eta, demokraziaren ikuspuntutik, oso zaila zen egoera hori justifikatzea. Onartutako aurrekonturik gabe, ez da zentzuzkoa gobernuak era jarrai batean bere lekuan segitzerik.

## **1. EAĒKO AURREKONTUETATIK KANPO GERATU DENA**

### ***a) a) EAĒko gainerako instituzioak***

Eusko Jaurlaritzaren eskumenak gastu publikoaren arlo jakin batzuk baino ez ditu hartzen. Zerga-sistemaren gaineko arauak xedatzeko eta zergak biltzeko ahalmena hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiena da, eta horiexek helarazten diote Gobernuari, ekarpenen bidez, eurek bildutakoaren zati bat. Beraz, zerga arloko politikei edo gastuaren atal batzuei dagokiena (gizarte zerbitzuak edo azpiegiturak, adibidez) Eusko Jaurlaritzaren eskumenetik at geratzen da.

Azken urteotan, Aldundiak gauzatzen ari diren politika gero eta areago oinarritzen da zerga-arinketetan, eta horrela, presio fiskala urritu egiten da. Hau da, sortutako aberastasunetik gero eta zati txikiagoa bideratzen zaio sektore publikoari, gastu publikoaren ahalbideak murriztu egiten dituen, eta,aldi berean, aberastasun horren zatirik handiena esku pribatuetan geratzen da. Eusko Jaurlaritzak politika horren alde azaldu izan da, eta zenbaitetan, taxutu ere egin du.

**b) Transferitu gabe dauden eta Eusko Jaurlaritzak finantzaz dituen esparruak**

Aurrekontuei buruzko eztabaidako gaietako batek, ordea, oihartzuna izan du gizartean. Eusko Jaurlaritzak oraindik Espainiako Gobernuaren eskuetan dauden transferentzia batzuk estaltzeko gastatzen duen dirua zenbatekotzeko adierazitako asmoaz ari gara, Lehendakariak 2002ko irailaren 27an Legebiltzarraren Osoko Bilkuran onartutako konpromisoan oinarritua.

Dena den, aurrekontuan, konpromiso horren isla bakarra "Estatuaren aldetik transferitzeke dauden gaiei buruzko eranskina" izenburuko atala da, "Argibide memoria" deritzon tomoan jasotakoa. Horren arabera, Eusko Jaurlaritzak 168 milioi eurotan zenbatzen du transferitu gabeko eskumenen kostua. Hezkuntza eta Ikerketa Saila da Jaurlaritzak diru gehien bideratzen diona, 92 milioi euro, hain zuzen ere; horren atzetik Lan eta Enplegu Saila dator, transferitu gabeko gaietarako 59 milioi daramatzana.

SAILAK	DIRU-KOPURUAK
EDUCACIÓN E INVESTIGACIÓN	92.082.437
TRABAJO Y EMPLEO	58.933.725
INFRAESTRUCTURAS Y MEDIO AMBIENTE	8.005.678
AGRICULTURA Y PESCA	4.922.149
CULTURA	4.054.236
JUSTICIA	410.000
<b>TOTAL</b>	<b>168.408.225</b>

*Iturria: Eusko Jaurlaritza*

Balorazio hori eginda, honako aipamen hau azaltzen da memoriaren testuan: "Ondorioz, ekarpen horren zenbateko ekonomikoak murriztu egin behar luke Estaturi ordaindu beharreko Kupoaren zenbatekoa". Baina, jarraian, arazoari unean bertan heldu eta, behar izanez gero, Estuari aurre egin beharrean, hauxe dio amaieran: "...2003. urtean ahalegin ekonomiko gehigarria egin beharko da, eta ahalegin hori...Estatuarekin etorkizunean egin beharreko negoziazioan sartuko da, konpentsatu beharreko diru-kopuru gisa". Hau da, negoziazioa 2003ko Kuporako planteatu beharrean, kontabilitateko idazpen moduko zerbaitetan geratzen da dena, etorkizunean, data zehatzik gabe, negoziatzeko atazatzat.

Baina, horrez gain, argibide memoria ez da Legebiltzarrean onartzen diren agirietakoa, izan ere, ez da ageri eztabaidatu eta onartzen diren testu artikulatuan, ez aurrekontu-sailetan.

## **2. SARRERAK: ALDUNDIEN EKARPENA ETA GOBERNUAREN ZOR JAULKIPENA**

### ***Ohar azalgarria***

Aurrekontuetako sailak aztertzean, kopuruak ikuskatu ez ezik, iazko datuekin erkatu ere egingo ditugu, eta horretarako, orokorrean, Eusko Jaurlaritzak 2002rako aurreikusitako gastu-itxierari erreparatuko diogu. Batzuetan, aurrekontu-sailetan jasotako guztia ez zen 2002an gastatu; horrelakoetan, 2002ko aurrekontu eguneratua ere aztertuko dugu.

2002 baino lehenagoko urteak aztertzen diren kasuetan, onetsitako obligazioei dagozkien kopuruak jasoko ditugu, horiexek islatzen baitute urte horietan benetan egin zen gastua.

Hau da, honako informazio hau aztertuko dugu:

- 2003ko aurrekontuak- 2003ko ekitaldiari buruz, onartutako aurrekontuan islatzen diren diru-hornidurak baloratuko ditugu.
- 2002ko itxiera-aurreikuspena- 2002ko ekitaldiari dagokionez, Jaurlaritzak aurrekontu-sail bakoitzean gastatzera zihoanari buruz egindako aurreikuspena dugu abiapuntu. Horixe da 2003ko aurrekontuekin erkatu daitekeen datu-rik hoberena, benetan gastatuko zenaren estimazioa delako.
- 2002ko aurrekontu eguneratua- Aurrekontu-sailek hainbat aldaketa izaten dituzte urtean zehar; beraz, askotan, programa bakoitzaren aurrekontua (hau da, horretan gastatu ahal den dirua) ezberdina izaten da urte hasieran eta urte amaieran.
- 2001eko edo aurreko urteetako ekitaldiei buruz, benetan gastatutakoa.

### ***2002: superabita eta zor jaulkipenik ez***

Jaurlaritzak 2002rako aurrekontuak onartzerik izan ez bazuen ere, horien proiektuan aurkeztu zuen argibide memorian hauxe zioen, hitzez hitz: "2002 urtean Euskal autonomi Erkidegoaren Administrazioak 10,3 milioi euroko eragiketa ez finantzarioengatiko defizita (diru sarrerak ez finantzarioak ken Gastu ez finantzarioak) izango du, hau da, Euskal Autonomi Erkidegoaren BPGaren %0,023a".

Hala ere, EAEko 2002ko aurrekontuaren likidazio-aurreikuspenak 47,7 milioi euroko superabita –BPGaren %0,11– erakusten du, 2002ko aurrekontu proiektuan aurreikusitako defizitetik urrun, alegia.

Izan ere, Foru Aldundiek Jaurlaritzak 2002rako aurreikuspena egitean uste zuena baino ekarpen handiagoa egin dute 2002an zehar, eta horregatik, ez da zor jaulkipenik egin beharrik izan.

Hortaz, berretsi egiten da ELAk duela urtebete egindako balorazioa, hau da, nolabaiteko defizita eta zor jaulkipenaren beharra aurkeztea plantak egite hutsa

zela, politika hedakorragoa garatuko zela sinestaraztekotan. Baina ez da esan zutenik bete.

Horrela, bada, 2002aren amaierako zor bizia 1.163 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGaren %2,66.

Aipatu behar da 2001ean Eusko Jaurlaritzak zor publikoaren jaulkipena kreditu linea batez ordeztea erabaki zuela. Kreditu linea mailegua eskatzeko aukerari esaten zaio eta, mailegurik eskatu ez arren, zor bizitzat kontabilizatzen da. Horrek bi ondorio ditu: batetik, zor publikoaren zenbatekoa artifizialki puzten da, eta bestetik, beste pribatizazio bide bat jorratzen da, gizarteari zuzendutako zorra izatetik finantza entitateek kudeatutako mailegu bihurtzen delako. Zor bizitzat islatu den zenbatekoaren bostena kreditu linea horretako 240 milioiak dira.

### ***2003rako Aurreikuspena eta iguripenak***

2003rako Aurrekontuei buruzko Lege Proiektuak 237 mila euroko defizita aurrezten du finantzazkoak ez diren eragiketengatik, hau da, BPGaren %0,0005ekoa. Hala ere, 2002an, 2003rako aurreikusitakoa baino askoz defizit handiagoko egoeratik abiatu arren, amaieran superabita egotea espero denez, 2003an berriro superabita egongo dela pentsa dezakegu.


Era berean, 2002an, 366 milioi euroko zorra jaulkitzea aurreikusita, zorrik jaulki ez zen bezala, 2003an jaulki daitekeen gehienezkotzat islatzen diren 390 milioiak ere ez direla jaulkiko pentsa dezakegu. Hori horrela bada, 2003aren amaierarako, zor bizia BPGaren %2,23koa litzateke, baimendutako gehienezko zorra jaulkiz gero legokiokeen %3,08aren orde.

### ***Zor biziaren bilakaera azken urteotan***

Ondorengo grafikoan, EAEn zor biziak sortu den aberastasunarekiko urtero izan duen bilakaera ikus daiteke 1998tik aurrera. Zorraren pisuaren jaitsiera aztertutako urte guztietan baieztatzen da, salbuespenik gabe.

1998an, Eusko Jaurlaritzaren zor bizia BPGaren %6,09koa zen. 2002aren amaieran, hau da, 4 urte geroago, ehuneko hori erdia baino gutxiagora jaitsia zen, lehen aipatutako %2,66raino, alegia. Horrek adierazten duenez, Eusko Jaurlaritzak azken urte hauetan, gastu soziala handitzea planteatu beharrean, zor publikoaren murrizpenean oinarritutako politika aukeratu du.

## EUSKO JAURLARITZAREN ZOR BIZIAREN BILAKAERA BPGAREKIKO 1998-2003. EAE



2003ko aurrekontuen argibide memorian, hauxe adierazten da: "Errespetatu behar da, lehenbizi, finantza ahalmen edo finantza beharizanen arabera Europako Batasunak aurrekontuaren orekari buruz gomendatutako politika". Esan behar da, hala ere, EBn, ekonomiaren desazelerazio egoerari aurre egiteko xedez, zero defizitaren helburua atzeratu egin dela. Baina EAEn ez; aitzitik, bertan zero defizitaren helburu hori eztaba daezina dela dirudi. Beraz, Eusko Jaurlaritzak lehentasun handiak jotzen du aurrekontu-oreka, estaltzeke uzten diren beharizan sozialei erantzutea baino.

### **3. 2003ko AURREKONTUAK: EUSKO JAURLARITZAREN GASTUAREN IKUSPEGI OROKORRA**

Eusko Jaurlaritzak, guztira, 6.185 milioi euroko gastua aurreikusi du 2003rako. Horrek, 2002ko gastu-aurreikuspenaren aldean, soilik %3,51ko igoera erakusten du. Beraz, Eusko Jaurlaritzaren gastuak ekonomian duen pisua urritu egiten da, 2002an BPGaren %13,67 izatetik 2003ko %13,46ra igarota.

Osasun eta Hezkuntza Sailen artean, gobernuaren gastuaren %60 daramate. Aurrekontuaren guztiarekiko gizarte gastuaren pisua altua izatea ez da aurrekontu hori aurrerakoi edo gizartekoia denaren seinale, nahiz eta gobernuaren propagandak hori sinistarazi nahi digun. EAeko eskumenen banaketaren irudia baino ez da, zeinetan beste arlo batzuk Aldundi edo udaletxeen esku dauden. Egiten den politika gizartekoia den ala ez ikusteko, Europako Batasunarekin konparatu beharra dago, eta horretan, Eusko Jaurlaritza atzean geratzen da.

2002ko aurreikuspenarekin erkatuta, Hezkuntza Sailaren gastuak izan duen igoera batez bestekoaren antzekoa da, baina Osasun Sailarena, aldiz, %5,98 igo da. Aurrekontuaren garrantziaren arabera hirugarrena Herrizaingo Saila da: horri gastuaren %7,13 dagokio, baina beretzako diru-hornidurak %9,5eko murrizpena izan du 2002ko gastu-aurreikuspenaren aldean.



Atal batzuek murrizpen handiak izan dituzte 2002ko itxiera-aurreikuspenarekin alderatuta; horra hor Zor Publikoa (%24,77, bai zor biziaren murrizpenagatik, bai interes tasetan izan den jaitsieraren zioz) edo Nekazaritza eta Arrantza (%16,7).

Gainerakoa esaten diogun atala igoera handienekoa da, %130,92koa, hain zuzen. Horren azalpena Ekarpenei buruzko Legearen negoziazioan Foru Aldundien eta Jaurlaritzaren arteko akordioa lortu izana da, eta funtsean, honakoa dakar:

- Foru ogasunen diru-sarreretak Eusko Jaurlaritzaren eskuetara doan ehuneko mantentzea.
- 2003-2007 bosturtekorako hainbat inbertsio publiko finantzatzeko programa bat sortzea; inbertsio horietatik, Jaurlaritzari %70,44 finantzatzea dagokio, eta hori, gobernuaren urteko aurrekontuen arabera, 84,5 milioi euro dira.

Igoera hori azaltzen duen beste arrazoa "zenbait sail" deritzon kontzeptuan (sail ezberdinen artean banatzeko zenbatekoak) aurreikusitako gastuaren ehunekoaren igoera nabarmena da.


#### 2003KO AURREKONTUAK SAILEZ SAIL. EUSKO JAURLARITZA

	Mila €takoak	Osokoaren %	03 igoera-02 aurreik. (%)
OSASUNA	2.005.005	32,42	5,98
HEZKUNTZA	1.710.000	27,65	3,54
HERRIZAINGOA	441.162	7,13	-9,50
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA	348.097	5,63	12,05
INDUSTRI, MERKATARITZA ETA TURISMOA	274.609	4,44	-4,13
ZOR PUBLIKOA	228.000	3,69	-24,77
GAINERAKOA	226.059	3,65	130,93
KULTURA	200.674	3,24	3,18
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIK	186.761	3,02	21,40
GARRAIO ETA HERRILANAK	179.872	2,91	-5,07
OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIOA	144.263	2,33	-9,37
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	139.758	2,26	-16,74
LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA INGURUMENA	100.740	1,63	23,87
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.185.000</b>		<b>3,51</b>

*Iturria: Eusko Jaurlaritza*

Ondorengo grafikoan, Eusko Jaurlaritzak ekonomian duen pisuak 2001az geroztik izan duen bilakaera ikus daiteke. 2002ko datuak aurreikuspena badira ere, ez da berdin gertatzen 2001ekoekin (indarrean dagoen gobernuaren eratu zen urtea), zeinetan Gobernuaren pisua BPGaren %13,76koa izan zen. Beraz, 2001etik 2003ra bitarte, Jaurlaritzak ekonomian duen pisuak 3 hamarren galdu ditu.

## EUSKO JAURLARITZAREN PISUA EKONOMIAN. 2001-2003 (BPGaren %tan)



### 4. OSASUNEKO GASTU PUBLIKOA

Berriro ere, Osasun Saila da aurrekontuan diru-hornidura handienekoa: zehazki, 2.005 milioi euro, hau da, Jaurlaritzaren gastu osoaren %32,42. Hortaz, sail horrek %5,98ko igoera izango du 2003an (betiere 2002ko itxiera-aurreikuspenaren aldean). Hala ere, Osasun Sailak ekonomian duen pisua ia bere horretan mantentzen da (2002an %4,32 eta 2003an %4,33).

Euskal osasun sistemaren funtzionamenduak ospe ona du. Baina hori ez da bertan gastatzen denaren ondorio. Izan ere, eskura dauzkagun azken datuen arabera (1999koak) Europako Batasuneko herrialde batek ere ez du EAEk bezain BPGaren ehuneko txikia erabiltzen osasun gastu publikorako. Aipatutako urte horretan, gastu txikiena Greziakoa izanik (BPGaren %4,7), EAEn, BPGaren %4,36 bideratu zen osasun gastura. Sail jakin bati zuzentzen zaion gastu ehunekoak ez du zertan bere estalduraren isla zehatza izan, baina ondo erakusten du, ordea, gobernua gai horretan egiteko prest dagoen ahaleginaren nolakoa.

### 5. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA

Bigarren sail garrantzitsuena Hezkuntza da, 2003an 1.710 milioi euro gastatzea aurreikusten zaio eta (gastu osoaren %27,65). Hezkuntzako diru-hornidurak %3,5eko gehikuntza baino ez du izan 2002ko itxiera-aurreikuspenaren aldean; beraz, gastu osoaren kasuan bezala, ekonomian duen pisua jaitsi egiten da (2002an BPGaren %3,78 eta 2003an %3,72).

Hezkuntzan egiten den gastu publikoaren ehunekoari buruzko azken datuak, 1999koak hauek ere, Europako Batasuneko herrialdeenekin erkatuz gero, EAE, berriro ere, azken tokietan geratzen zaigu. Izan ere, urte horretan, EAEk BPGaren %3,95 bideratu zuen hezkuntzara (2003rako aurreikusitakoa baino 0,23 puntu gehiago), eta Greziak soilik bideratu zuen hori baino ehuneko txikiagoa hezkuntzako gastura, %3,44, hain zuzen.

Era berean, deigarria da 2003ko aurrekontuak hezkuntza sistema euskalduntze-ko aurreikusitako horniduraren jaitsiera handia. 2002ko itxiera-aurreikuspenean jasotakoa baino 17,35 milioi euro gutxiago aurreikusi da. Hau da, aurrekontuak %34,5eko jaitsiera erakusten du atal horretan, 2002ko gastu-aurreikuspenaren aldean. Beraz, aurrekontu sail horrek BPGan duen pisua 2002an %0,12koa izatetik 2003an %0,07koa izatera igaro da.

Haur eta Lehen Hezkuntzei dagokienez, 526 milioi euroko hornidura esleitu zaie, hots, 2002an baino %3,72 gehiago soilik. Horren arabera, 2002ko BPGaren %1,16tik 2003ko %1,14ra jaitsi da. Datu horiek agerian uzten dute Jaurlaritzak, 0-3 urtekoen ziklorako beharrezko lanpostu guztiak estaltzeko beharrian sozialari erantzuteko duen borondate eskasa. Sare publikoan haur hezkuntza ziklo osora hedatzea lortzeko, diru-hornidurak handitu beste biderik ez dago; baina ez da hori 2003rako aurrekontuan agertzen dena.

## **6. OINARRIZKO ERRENTA**

Onartutako aurrekontuetan, bakarrik bizi diren pertsonentzako oinarrizko errentaren zenbatekoari dagokionez, Lanbide arteko Gutxienezko Soldataren (LGS) %79tik %81erako igoera aurkeztu da. Baina bizikidetz-unitateko gainerako bizikideei aplikatu beharreko eskala ez da aldatu, eta bizikidetz-unitate bakoitzeko LGSaren %125eko gehienezkoa ere ez da ezeztatu.

Aurrekontuetan islatutako aldaketa horrek ez du inolako eraginik izango oinarrizko errenta kobratzen dutenek jasoko dituzten zenbatekoetan, hiru lurraldeetan %81 horretatik gorako ehunekoak onartu direlako.

Beraz, erreferentziatzat Lanbide arteko Gutxienezko Soldata edukitzeagatik, eta LGS hori inflazioa baino gutxiago haz dadin bilatzen duen gobernu espainiarraren politikaren ondorioz, oinarrizko errentak eroste-ahalmena galdu egingo du 2003an (2003rako, eroste-ahalmenaren %2ko galera).

Bere garaian, ELAk ondorengo eskalaren arabera oinarrizko errenta xedatzea proposatu zuen:

- 18 urtetik gorako lagun bakarra duten unitateentzat, oinarrizko errenta LGSaren bestekoa izango da.
- Gainerako bizikide bakoitzeko, LGSaren %50 erantsiko zaio oinarrizko errentari.

Gaur egun proposamen hori aurrera eramatea guztiz posiblea delakoan gaude.

## **7. ETXEBIZITZA GASTUA**

Aurrekontuaren arabera, 2003rako diru-hornidura 131,9 milioi eurokoa da, 2002ko gastu aurreikuspena baino %28,2 gehiago, alegia. Hala ere, igoera hori ez

da datu pozgarria, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 2002an aurrekontuak ahalbidetzen zion guztia ez gastatzearen ondorioa delako.

Berez, 2002ko hirugarren hiruhilekoan, Etxebizitzarako aurrekontu eguneratua 126 milioi eurokoa zen, baina itxiera-aurreikuspena 103 milioikoa baino ez da. Horren arabera, bada, Etxebizitza Sailak iaz 23 milioi euro (3.827 milioi pezeta) utzi ditu gastatu gabe.

Datu horiek ez diote inola ere erantzuten euskal gizartean etxebizitza lortzea den arazo hazkorrari, ez eta etxebizitzaren prezioak jasaten ari diren etengabeko igoerari ere, eta, horrela, estaltzeke uzten dira biztanleriaren beharrezkoen gero eta zati handiagoa. Bitartean, EAeko Etxebizitza Beharrezkoen eta Eskariei buruzko azken txostenaren arabera, 2001ean 109.000 etxebizitza behar ziren (lehenengoz etxebizitza behar zuten 71.000, eta etxebizitzaz aldatu beharrean zebiltzan 38.000). Lehenengoz etxebizitza erosi behar dutenek euren gain har dezaketen gehieneko prezioa, batez beste, 103.000 eurokoa da, eta aldaketa behar dutenena, 112.000 eurokoa. Baina etxebizitza librearen batez besteko prezioa 202.000 eurokoa da, hau da, etxebizitza behar dutenek euren gain har dezaketen gehienekoaren bikoitza ia. Horrek erabateko gordintasunez erakusten du arazoaren larritasuna, eta askoz jarrera eraginkorragoa exijitzen du administrazioen aldetik, pertsona guztiek etxebizitza duina edukitzeko duten eskubidea bermatzearen.

## **8. INDUSTRIA ETA ENERGI POLITIKA**

2002ko aurrekontu proiektuaren argibide memoriak honakoa jasotzen zuen: "Gastu publikoari dagokionez, milurteko honetan, Euskadin erreforma egitura eta ekonomiaren eta enpleguaren bultzadari lehentasuna ematen jarraitu nahi dugu, guztion artean gizarte solidarioagoa eta bidezkoagoa eraikitzen jarrai dezagun. Guzti hau, aurrekontuaren orekan oinarrituta Administrazioak ekonomiaren jardueraren aurrean faktore antizikliko eta orekadun gisa joka dezan". Hitz politik horiek gorabehera, ordea, industri politikako gastua 2002an %20,8 jaitsi zen 2001ekoaren aldean.

2003an industri politikarako onartutako diru-hornidura 106 milioi eurokoa da, oraingoan ere, 2002ko gastu estimazioa baino %8,4 txikiagoa, alegia.

Aurrekontuetan, Energi Politika eta Garapenerako, 8,7 milioi euro baino ez dira esleitzen, eta horietatik 240.405 euro (kapital-eragiketarako transferentzia eta dirulaguntzen %2,9, hain zuzen) baino ez doaz Sektore Publikoko erakundeetara, 8.144.010 (%97,1) enpresa pribatuetara doazelarik. Horrek guztiz baieztatzen du Energi Politika eta Garapenerari buruzko ataleko memorian azaltzen den esaldi hau: "Ekimen pribatuak egingo du inbertsio handiena".

Enpresa pribatuentzako transferentzien barruan, 5.944.010 (%73) energi proiektuen eraikuntzara bideratzen dira, 1.600.000 (%19,6) energi eraginkortasunera, eta 600 (%7,4), besterik ez, energia berriztagarrietara. Argi ikusten da, beraz,

Jaurlaritzaren politikak, energia kutsagarrienen alde eta berriztagarrien kaltetan, zehaztutako lehentasuna.

### ENERGIA GARAPENA ETA POLITIKA

AZALPENA	AURREKONTU SAILA
Langile-gastuak	227.537
Funtzionamendu-gastuak	61.800
Energia eraginkortasunean Euskal Administrazioaren eredia	60.100
Euskal Alor Publikoko erakundeei transferentzi eta dirulaguntzak	240.405
Enpr. prib. transf. eta dirulag.: energi proiektuak, ekonomi sustapena	5.944.010
Enpr. prib. transf. eta dirulag.: energi eraginkortasunerako inbertsio sustapena	1.600.000
Enpr. prib. transf. eta dirulag.: energia berriztagarrietarako inbertsioen sustapena	600.000
Guztira	8.733.852

*Iturria: Eusko Jaurlaritza*

Euskadi 3E-2005 Plan Estrategikoak, 1999-2005 epealdian, autohornikuntza elektrikoaren tasa %82raino hobetzeko helburua finkatu zuen. Aurrekontuetatik ondoriozta daitekeenez, 2003an Euskadi 3E-2010 Plan Estrategiko berria jarriko da indarrean, 2005erako aurreikusitako %82 baino autohornikuntza tasa handiagoa lortzeko helburua finkatuta, baina ez da azaltzen maila horrek zenbaterainokoa izan behar duen. Energi sortzapena autohornikuntzaren %100eraino areagotzea onargarria liteke, ez ordea ehuneko horretatik gorago.

Aurrekontuetan, energi sortzapenerako hainbat proiekturi esleitzen zaizkie diru-hornidurak, baina proiektuon eraikuntzaren bidez zenbateko autohornikuntza maila lortuko den ere ez da argitzen. Gure iritziz, maila hori behar bezala zehaztu, eta derrigorrez bete beharrekoa izan behar du. Guztiz arbuia garria izango litzateke, guk uste, hainbat instalazio eraikitzea, lortzen ari den ekoizpen maila kontrolatu gabe, eta lortu beharreko hartzen den maila elektrizitate sortzapenean diharduten enpresen proposamenen arabera aldatuz joatea; edo superabiteko mailara iritsi, eta soberakina esportaziorako erabiltzea.

## 9. GARRAIOAK ETA HERRI LANAK

2003ko aurrekontuek 2.354.928 euroko diru-hornidura jasotzen dute EAEko trenbide sare berrirako edo, bere izenaz deitzeko, abiadura handiko trena edo euskal "Y" deritzonerako. Abiadura handiko trenaren etorkizunari buruzko proiektuak, eragingo dituen ingurumen inpaktuez gain, ez du inolako ekarpenik egiten merkantzien arazoa konpontzeari begira, nahiz eta horien garraioa errepidetik trenbidera aldatzea guztiz lehentasunezkoa den.

Abiadura handiko trena bidaiarien garraiorako aukera da, merkantzien garraiora barik, eta ez die herri honen beharrei erantzuten. Eztabaida eta gizartearen edo proiektu horren aurka daudenen parte-hartzea aldarrikatzen dituzten taldeen pro-

testak eta mobilizazioak gorabehera, badirudi Eusko Jaurlaritzak proiektua burutzeko asmoa duela, gizartearen eskariei entzungor eginez.

Bestalde, agerian geratzen da Jaurlaritzaren eta Aldundien artean azpiegituren alorrean dagoen koordinazio falta. Ildo horretan, adibidez, Bizkaiko Foru Aldundia, superportura heltzen diren merkantziak mesetarantz ateraraztekotan, Supersur eta antzeko errepide planak sustatzen ari da. Jarduketa horrek Jaurlaritzak Ingurugiro Estrategiaren Agirian garraio pribatutik garraio kolektibora aldatu beharraren inguruan adierazitakoaren kontra jotzen du, izan ere, errepide berriak eraikitzeak autoa areago erabiltzea baino ez baitu sustatzen. EAEn ez dago garraio osoa hartzen duen eta garraio bide guztien gaineko jarduketak koordinatzen dituen plan orokorrik. Horregatik, ez da harrigarria, koordinatu eta elkarri lagundu beharrean, kontrako noranzkotan bultzatu eta elkarri traba egiten dioten jarduketak ikustea.

## **10. PERTSONALARI BURUZKO POLITIKA**

Onartu den aurrekontu legearen 14. artikulua honakoa xedatzen du: "Orokorrean, aurrekontu-plentillak langile-hornidura berriak sortuz aldatzen badira, behar beste hornidura amortizatu egin beharko dira horren ondorioz, urteko kostu gordina handiagoa izan ez dadin", edo, bestela esateko, ezin dela lanpostu berririk sortu edo, behintzat, pertsonal gastua handitu.

Pertsonal gaitan garatzen ari den politika murrizgarri hori bat dator sektore publikoak ekonomian duen pisua urritzeko joera orokorrarekin. Dena den, ez da hori egin ahal zaion kritika bakarra. Azken urteotan, kudeaketa pribatua duten mota guztietako sozietate publikoak edo para-publikoak sortzeko joera nabarmenki areagotu da, sozietateok zuzentzen dituztenen jokabideen aukerakotasuna askoz handiagoa dela ahaztu gabe. Fenomeno zital horrek ekonomi, gizarte eta lan arloetara dakartzan ondorioak onartezinak dira, eta, gainera, hondatu egiten dute sektore publikoak izan behar dituen eginkizuna eta irudia.

## **11. ONDORIOZTAPENAK**

1. Aurrekontuen edukiari buruzko eztabaidarik ez da ematen gizartean eta politikan. Ohizko gatazka politikoek ordezkatzeko dute berau. Mayor Orejaren atzerapenaren gertakaria gehitu zaie hauei aurten. ELAK egoera hau deitoragarria dela deritzo, gobernu batek garatu nahi duen gizarte ereduak nolakoa den ikusteko oinarritzko elementua baitira aurrekontuak.
2. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak aztertzerakoan aurkitzen dugun lehen arazoak, aurreko urteekiko konparazio bat burutu ahal izateko informazioaren falta da. Beste erakunde batzuei ere eragiten dien informazio ezaren politika batekin jarraitzen du Gobernuak (nahikoa da zerga arloan Foru Aldundien adibidea gogoratzea). Gobernua, berak Legebiltzarrerara bidalitako informazioa ukatzera heldu da, eta honek erakusten du zein murrizta den demokrazia eta

- erabaki publikoak hartzerakoan gizartearen eginkizuna zein denari buruz duen iritzia.
3. Eusko Jaurlaritzak superabitarekin amaitu zuen 2002a. Bere lehenengo estimazioen arabera, superabita 47,7 milioi eurotako izan zen (BPGaren %0,11). Europako Batasunean (EB), gobernuak aurreikusitakoak baino defizit handiagoekin ari dira euren aurrekontuak ixten; Eusko Jaurlaritza, aitzitik, finantzazko ortodoxia neoliberalak darabilen ia bakarra da. Urtero-urtero, superabita izaten du, gizarte beharrezko garrantzitsuak estaltzeke uztearen truke. Zor publiko biziaren BPGaren %2,66raino jaitsi zen 2002an. 1998an %6,09koa zen. Azken urteetan, Jaurlaritzak, superabita izateaz batera, arrapaladan murriztu du bere zor biziaren.
  4. 2003rako onartutako aurrekontuak gobernuak ekonomian gastatzen duenaren pisua murrizteko joerari eusten dio. 2003rako onartutako gastuak soilik %3,5eko igoera izan du 2002ko itxiera-aurreikuspenaren aldean. Hau da, 2002ko inflazioa (%4) baino gutxiago hazten da, eta, bistan denez, ekonomiak izango duen hazkunde nominala baino gutxiago ere bai. Horrela, beraz, Eusko Jaurlaritzaren gastua 2002an BPGaren %13,67koa izatetik 2003an %13,46koa izatera igaroko litzateke, azken urteetako joerari eutsiz. Horrek erakusten duenez, urtez urte, sortzen den aberastasunetik gero eta gutxiago erabiltzen da gobernuak ematen dituen zerbitzuak betetzera.
  5. Askotan entzun ohi da osasuneko gastua izugarri igoen ari dela. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da. 2003rako onartutako aurrekontuetan, aurtengo BPGaren %4,33 esleitzen zaio osasuneko gastu publikoari; alegia, 2002ko (%4,32) ehuneko bertsua. Izan ere, ehuneko hori egonkor mantendu da azken urteetan, 2000ra arte jasandako jaitsieraren ostean. Gainera, EBko estatuarekin erkatuta, EAEk horietako bat ere ez du gainditzen, osasunera bideratzen duen gastu publikoari dagokionez.
  6. Hezkuntza arloan, 2003rako onartutako gastu publikoa 2002koa baino %3,5 handiagoa da soilik, eta horrek hezkuntzak ekonomian duen pisua berriro ere urritu egiten dela adierazten du, 2002ko BPGaren %3,78 izatetik 2003ko %3,72ra igarota. Osasun arloan gertatu bezala, adierazle horrek ere EBko azken tokietan jartzen gaitu, atzetik bakarrik Grezia dugula. Hezkuntzan, honako bi alderdi hauek nabarmendu behar dira: hezkuntza sistema euskalduntzeko aurrekontuak jasaten duen beherakada biziaren (%34,5) eta haur eta lehen hezkuntzei esleitzen zaien gastuaren igoera urria, Jaurlaritzak 0-3 urtekoen zikloa sare publikoan hedatzeari dagokionez duen borondate eskasaren erakusle.
  7. Oinarrizko errentari dagokionez, Jaurlaritzak bere gobernu-kontseiluak hartutako erabakiaren norabideari jarraitzen dio; beraz, praktikan, errenta jasotzen dutenei ez zaie inolako hobekuntzarik eskaintzen. Era horretan, eta Espainiako gobernuak inposatuta Gutxienezko Soldataren erosteko ahalme-

nak izan duen galeraren ondorioz, erosteko ahalmena murriztu egiten zaie oinarrizko errenta kobratzen dutenei.

8. Etxebizitzari dagokionez, harrigarria bada ere, 2002ko itxiera-aurreikuspenaren arabera, Jaurlearitzak xede horretarako onartuta zeukan aurrekontuaren oso zati garrantzitsua utzi zuen iaz gastatzeke (23 milioi euro, hain zuzen, onartuta zeuzkan 126etatik). Berez, lehenengo etxebizitza erosteko edo etxez aldatzeko beharrianak biztanle asko jotzen ditu (2001ean 109.000 etxebizitza behar ziren), eta behar hori dutenek ordaindu ahal dituzten gehienezko prezioak ozta-ozta heltzen dira etxebizitza librearen prezioaren erdira. Arazo horren larritasunak jarrera eraginkorragoa eskatzen du, horrenbesteko propaganda barik, aurrekontu handiagoa esleitzean oinarritua.
9. Industri Politikaren atalean, 2002ko gastuak %20,8ko jaitsiera izan zuen 2001ekoaren aldean. 2003rako diru-hornidurak ere jaitsiera islatzen du: %8,4koa, hain zuzen ere, 2002rako gastu estimazioarekin erkatuta. Hala ere, gobernua beste programa batzuetan ere ari da industri politikaren alorreko ekintzak garatzen, adibidez, energi politika eta garapenerako programan: horretan gastatzen denaren %97,1 enpresa pribatuei zuzentzen zaie, energia berriztagarrietarako, diru-hornidura sinbolikoa egiten delarik. Aurrekontuetan, %82tik gorako energi autohornikuntza tasa lortzeko helburua finkatu da. Zalantzarik gabe, horrek zerikusi handia du energi proiektuen ugaritzearekin, baina proiektu horiek guztiak gauzatuz gero, EAEko energi ekoizpena gehiegizkoa litzateke. %100eko autohornikuntza gainditzeak ez du inolako justifikaziorik, ingurugiroko arloko ondorioak kontutan hartuz.
10. 2003rako aurrekontuetan, 2,35 milioi euroko hornidura esleitzen zaio euskal Y deritzonari. Ingurumen, ekonomi zein gizarte ikuspuntuetatik begiratuta, proiektua erabat ezegokia da hainbat alderditan (alderdi horietako batzuk Jaurlearitzak berak onartu ditu); beraz, proiektua aurrera eraman nahi sutsu horrek ez du inolako oinarririk.
11. Politika murrizgarria pertsonalaren alorrean ere islatzen da; izan ere, aurrekontuetan argi uzten da enplegua (edo pertsonal gastuak) ugaritzeko debekua. Beraz, sektore publikoak ekonomian duen pisuak beherantz segitzen du. Eta hori gutxi balitz, aldi berean, kudeaketa pribatua duten eta gizartearen kontrolpetik erraz itzurtzen diren hainbat sozietate mota eratzen ari da administrazioa, jardunbide horrek ekonomi, gizarte zein lan alorretara dakartzan ondorio onartezinei entzungor eginez.
12. Azkenik, azpimarratu nahi dugu Legebiltzarraren 2002ko irailaren 27ko Osoko Bilkuran Lehendakariak Jaurlearitzari eskualdatu ez zaizkion eskumenak estaltzeko erabiltzen den diru-kopurua kuantifikatzeko konpromisoa hartu zuen arren, asmo hori aurrekontutik kanpo utzi da. Horren ordeztan, azalpen soil bat agertzen da eranskin batean (nahiz eta aurrekontuei buruzko eztabaidan, eranskin hori ez da ez bozkatzeko, ez onartzen direnetakoa), baina 2003ko



Kupoan negoziatzeko inolako planteamendurik gabe. Aitzitik, etorkizunean negoziatu beharreko gaitzat aipatzen da, ez datarik, ez konpromiso zehatzik adierazi gabe.

## 2.

# 2003rako NAFARROARAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUAREN BALIOESPENA

---

### 0. SARRERA

Honako agiri honetan, Nafarroako Gobernuak 2003rako aurkeztu duen aurrekontu-proiektua aztertuko dugu. Proiektu hau atzera bota zen 2002ko abenduaren 27an, Gobernuak (UPN y CDN) oposizioak haina bozka izatearen ondorioz (25 bozka bakoitzak hain zuzen). Hori dela eta, Nafarroak aurrekontu luzatuak izango ditu 2003an, baina ez 2002. urtekoak (urte honetan ere aurrekontuak atzera bota baitziren), 2001. urtekoak baizik. Dena den, 2003ko aurrekontu proiektua aztertzea egokitzat jo dugu, Gobernuak gizartearentzako dituen asmoen adierazle baita.

Hasi baino lehen, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Sailaren jarrera deitoragarria salatu egin behar dugu, analisi hau egiteko behar genuen dokumentazioa ukatzeko ardura ere ez baitu hartu. Hori dela eta, beste iturri batzuetara jo beharrean izan gara.

Ezin esan aurkeztutako informazioaren kalitatea ona denik; izan ere:

- Ez dago osatuta. Sailen barruko programa zehatzak aztertzean, adibidez, aurrekontu-sail batzuen diru-hornidurak ez dira xehatuta agertzen.
- Kontraesankorra da. Aurkeztutako dokumentazioaren zenbait ataletan, kopuru ezberdinak agertzen dira kontzeptu berari buruz.
- Sakabanaturik dago.

### 1. 2003RAKO AURREKONTU PROIEKTUA

Nafarroako aurrekontu-proiektuak 2.631,9 milioi euroko gastua aurreikusten du 2003ko ekitaldirako. Aurrekontuen arabera, 2002ko gastu-itxieraren aurreikuspena 2.520.237.453 eurokoa da. Horrek, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2003ko aurrekontuetan %4,43ko gehikuntza dagoela adieraziko luke. Ildo horretan, gastu osoaren pisua 0,32 puntu jaitsiko litzake Balio Erantsi Gordinarekiko (BEG), 2002ko %23,73tik 2003ko %23,41era igarotzean.

Edonola ere, Gobernuak gastu osoari dagokion itxieraren aurreikuspena baino ez du aurkezten, aztertu behar ditugun sail guztiena zehaztu gabe. Horregatik, sail bakoitzaren 2003ko aurrekontuak 2002ko aurrekontu bateratua deritzonarekin (hau da, egon daitekeen gehienezko gastuarekin, Gobernuak berak gastatzeko asmoa duena baino handiagoa dena) konparatu beharrean gaude.

2003rako diru-hornidurarik handiena Osasun Sailak dauka: 599,6 milioi euro, hots, aurreikusitako gastu osoaren %22,78. Bigarren handiena Ekonomia eta Ogasun Sailarena da: 497 milioi euro, hau da, gastu osoaren %18,88. Hirugarrena Hezkuntza eta Kultura Sailarena litzateke, 470,8 milioi euroekin, gastu osoaren %17,89 adierazten duena. Horren atzetik, Herri Administrazioa legoke, 217,2 milioiko diru-hornidura daukana, gastu osoaren %8,5, alegia.

#### NAFARROAKO AURREKONTU PROIEKTUA ( ). 2003.

Aurrekontu Proiektua		Guztiarekiko %a	2002rekiko hazkundera
OSASUNA	599.597.758	22,78	(*)
EKONOMIA ETA OGASUNA	497.022.193	18,88	-4,45
HEZKUNTZA ETA KULTURA	470.797.618	17,89	5,52
HERRI ADMINISTRAZIOA	217.177.650	8,25	-11,54
INDUS.,TEKNOL.,MERKAT.,TURISM., ENPL.	179.904.081	6,84	2,86
GIZ. ONG.,KIROLA ETA GAZTEDIA	169.058.864	6,42	4,02
LEHEND., JUSTIZIA ETA HERRIZAINGOA	49.985.236	5,70	0,73
HERRI LAN, GARRAIO., ETA KOMUNIKAB.	135.827.577	5,16	-10,16
NEKAZ., ABELTZ. ETA ELIKADURA	106.250.219	4,04	2,41
INGURUG., LURRALD. ANTOL., ETXEBIZ.	92.961.251	3,53	-4,36
LEGEbiltzarra	12.846.588	0,49	-12,25
NAFARROAKO KONTSEILUA	521.603	0,02	24,53
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.631.950.638</b>	<b>100,00</b>	<b>27,43</b>

*Iturria: Nafarroako legebiltzarra*

(\*) Osasun Sailak izan duen bilakaera ezin da 2002ko aurrekontu bateratuarekin erkatu, Gobernuaren agiriak berak onartzen duenez, 2002ko datuak ez baitira zuzenak, aurrekontu bateratuan islatu ez diren diru-hornidurak egin behar izan direlako.

## 2. SARRERAK. ZERGEI BURUZKO POLITIKA

2003rako aurreikusitako sarrerak 2.631,9 milioi eurokoak dira: horrek %4,38ko gehikuntza adierazten du 2002ko sarrera-itxieraren gaineko aurreikuspenarekin alderatuta. Beraz, zergen presioa 0,33 puntu jaisten da, 2002ko % 23,74tik 2003ko %23,41era igarotzean.

2003rako datuetan, aipagarria da zeharkako zergetan aurreikusi den igoera (%9,19koa), zuzeneko zergena (%1,56) baino askoz handiagoa da eta. Nafarroako zerga-sistemaren atzerakortasunaren beste froga bat dugu hori. Agian horrexegatik ez zaigu eman Sozietateen gaineko 2002ko Zergak izan duen bilakaerari buruzko daturik; baina, kalkulatu ahal izan dugun arabera, Sozietateen gaineko Zergaren eta egoiliar ez direnen gaineko Zergaren baturak (batura horretan, 2002an, Sozietateen gaineko Zergak %90a baino gehiago hartzen duelarik) bakarrik %1,91eko igoera izango luke 2002koaren aldean. Horrela, bada, 2003rako aurreikuspenarekin bat, zuzeneko zergak bildutako guztiaren %42,6 lirateke, eta zeharkako zergak, %49,9. Gainerakoa (%7,44) tasa, transferentzia eta antzekoen bidez bilduko litzateke.

### ***Zor publikoa***

Nafarroako Gobernuak zor publikorik jaulki gabe lortu nahi du aurrekontu-oreka, izan ere, 2003rako aurreikusitako gastua eta sarrerak berdinak baitira, zor publikoaren beharrik gabe.

Beraz, 2003ko zor bizia \_BEGaren %5,7koa\_ 2002koaren berdina da berriro, hau da, 641.407.654 eurokoa. Zor publikoaren amortizazioari buruz 2003rako aurrekontuetan aurkeztutako datuak faltsuak direla esan behar da, edo, beraietan adierazten den bezala esateko, " aintzat hartu behar da aurrekontuetako sail hau hantitu egin daitekeenez, diru-hornidura sinbolikoa dela, eta, horregatik, ezin da aurreko ekitaldikoarekin erkatu, horretan benetan erabilitako zenbatekoak azaltzen baitira".

2002ko finantzazkoak ez diren eragiketen behin-behineko aurreikuspenak ia 15 milioi euroko superabita islatzen du, hau da, BEGaren %0,14. Beraz, zilegi zaigu esatea Nafarroako Gobernuaren aurrekontu politika murriztailea dela. Europako Batasunak zero defizitaren helburua bertan behera utzi duelarik, Nafarroako Gobernuak neoliberalismoaren aitzindari izan nahi du. Horrek honako bi ondorio larriak dakartza:

- Beharrian sozialak estaltzeke uzten ditu
- Orain bezala ekonomia geldirik dagoela, oso ondorio kaltegarriak izan litzake horrek.

### ***Zergen ikuskapena***

Aurrekontuetan adierazitakoaren arabera, Nafarroako Ekonomia eta Ogasun Sailak 350 zergadunen ikuskapena baino ez du egingo 2003an zehar, kopuru horretan bai pertsona fisikoak, bai erakundeak hartuta. Ataza horretan 31 pertsonak jardutea aurreikusi du. Zergak ikuskatzeko zehaztutako gastua BEGaren %0,02koa soilik da eta, ikuskapenetarako, Ekonomia eta Ogasun Sailaren gastu osoaren %0,35 baino ez da erabiliko.

Azken horri oso datu kezkarri deritzogu, izan ere, azken datuen arabera \_2000n aitortutako errentei buruzkoak\_ lan errentek, batez beste, 18.756,3 \_ aitortu zituzten, enpresarien errentek 10.222,3 \_ eta profesionalen errentek 8.587,6 \_ aitortu zituztelarik. Datuek, datu publikoak beti ere, dena argitzen dute, eta enpresari eta profesionalen errenten zerga-iruzur itzela ere uzten dute agerian, Gobernuaren laguntzaz handituz doan iruzurra, hain zuzen.

### 3. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA. EKONOMI HITZARMENA

Ekonomia eta Ogasun Sailaren aurrekontuaren %80,77, hau da, 401.449.353 euro, Estaturako Ekarpena osatzen duen sailera bideratzen da. Sail hori aurreko ekitaldikoaren berdintsua da (%0,11ko igoera txikiaz).


### 4. OSAUNEKO GASTU PUBLIKOA

2003an, Osasun Sailak 599,6 milioi euro gastatzea aurreikusten da: horixe da, hain zuzen ere, dirurik gehien (guztiaren %22,78) eramango duen saila.

Osasun Sailak %17,27ko igoera izan du 2001etik hona (goian esan bezala, ezin da 2002koarekiko bilakaera aztertu). Sail honen gastuari dagokion ehunekoak igoera izan du, 2001ean BEGaren %5,09 izatetik 2003ko %5,33era igaro da eta.

Sendagileen errezetek Osasun Sailaren gastu osoaren %18,12 daramate, hau da 108,6 milioi. Laneko Osasuna bermatzeko programarako, 4,6 milioi baino ez dira erabiliko 2003an, hau da, Osasunean gastatuko den zenbateko osoaren %0,77 baino ez.

HEZKUNTZAKO ETA OSASUNEKO GASTU PUBLIKO OSOA.  
BEGAREN ARABERAKO %. NAFARROA, 1998-2003



Grafiko honetan, Nafarroako Gobernuaren gastu osoak BEGarekiko izan duen bilakaera ikus daiteke: gastuak 1,28 puntu galdu ditu 1998 eta 2003 artean, %24,69tik %23,41era igarota.

Nafarroako Gobernuaren zor biziak BEGarekiko izandako jaitsiera da beste gerta-kari azpimarragarrienetariko bat. 1998an Nafarroako zor biziak BEGaren %8,29% suposatzen zuen. Urtez urte, beronen balioa jaitsiz joan da, 2003an %5,7ra iriste-raino. 7 urte hauetan, beraz, zor biziaren pisua 2,6 puntu jaitsi da Nafarroan, edo berdina dena, %31,2a.

Osasuneko eta Hezkuntzako gastu publikoari dagokionez, interesgarria da, Europako Batasunari buruz dauzkagun azken datuen arabera (1999koak), bertako herrialdeetatik banantzen gaituen tartea egiaztatzea.

Nafarroako Gobernuak BEGaren %5,33 gastatu zuen 1999an Osasunean. Urte horretan bertan, EBko 15 herrialdeetatik bakarrik Finlandia (%5,2), Grezia (%4,7) eta Italiako gastua (%5,2) ziren hori baino txikiagoak, EAEkoa ez ezik.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntzan egindako gastu publikoa BEGaren %3,81ekoa izan zen 1999an. Arlo horretan, Greziako gastua (%3,44) baino ez zen hori baino txikiagoa.

## 5. HEZKUNTZA ETA KULTURAKO GASTU PUBLIKOA

Goian esan bezala, 470,8 milioi euroko gastua aurreikusten zaio Hezkuntza eta Kultura Sailari, hau da, aurreko ekitaldian baino %5,52 gehiago. Ehuneko horrek nolabaiteko jaitsiera erakusten du BEGarekiko, 2002ko %4,20tik 2003ko %4,19rako, hain zuzen ere.

Nafarroako kasuan, ezin da hezkuntza zikloaren arabera Hezkuntzarako aurrei-kusitako gastua aztertu, eta azter daitezkeen alderdietan, honako hiru programa hauei deritzegu interesgarri:

### NAFARROAKO AURREKONTU PROIEKTUA HEZKUNTZA ETA KULTURARAKO ( ). 2003.

	2003rako Aurrekontu Proiektua	2002.ko Proiektu Bateratua	Gehi- kuntza %
Euskararen irakaskuntzaren sustapena eta garapena	1.944.824	1.732.862	12,23
Hizkuntz programazioa, ikerketa eta garapena	3.483.178	3.311.765	5,18
Unibertsitateak eta ikerketa	55.147.986	49.858.508	10,61
Gainerakoa	410.221.630	391.264.797	4,85
<b>Guztia</b>	<b>470.797.618</b>	<b>446.167.932</b>	<b>5,52</b>

*Iturria: Nafarroako Legebiltzarra*

2003an, euskararen irakaskuntzaren sustapen eta garapenean 1,9 milioi euro gastatzea aurreikusten da, hau da, 2002n baino %12,23 gehiago, baina bere

horretan mantentzen da BEGarekiko ehunekoa (%0,02). Atal horren barruan, Gau-  
eskolei ematen zaien dirulaguntza %5,26 txikiagoa izango da.

Bestalde, 2003an, hizkuntz programazio, ikerketa eta garapenerako, 3,5 milioi  
euroko gastua aurreikusten da; horretan ere, aurreko ekitaldian baino %5,18  
gehiago gastatzeko asmoa dagoen arren, BEGarekiko ehunekoa bere horretan  
mantentzen da iazkoaren aldean. Atal horren barruan, gizarte komunikabideetan  
euskararen inguruan garatuko diren programetarako diru-hornidura ere %4 jaitsi-  
ko da.

Edonola ere, euskararekin lotutako bi programa horien batura Hezkuntza eta  
Kultura Sailak 2003an gastatuko duen zenbateko osoaren %1,15 baino ez da.

## **6. ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOA**

Aurrekontuen arabera, 2003rako, etxebizitzarako aurreikusitako gastua (proiek-  
tuan etxebizitzaren eraikuntza eta birgaitzea deritzonak) 46,6 milioi eurokoa da,  
hots, aurreko ekitaldian baino 7,2 milioi euro edo %13,41 gutxiago. Aipatu behar  
da lurzoruaren lorpena, etxebizitza eta eraikuntzak deritzon sailak jaitziera nabar-  
mena izan duela, lurzoruaren urbanizazioaren zati bat aurrekontuetatik kanpoko  
baliabideez egiten delako.

Sailez sail begiratuta, hirigintzako desjabetzeak eta hirigintza eta ingurumen-  
xedeetarako lursailen erosketak hartzen dituen sailak, adibidez, %22,05eko murriz-  
pena agertzen du aurreko ekitaldikoaren aldean.

Aurrekontu proiektuaren memorian aipatzen den arabera, honako helburu hauek  
bete nahi dira, besteak beste, etxebizitzarako aurrekontua erabiliz:

- Babes ofizialeko 2.000 etxebizitzaren eraikuntza sustatzea (Nafarroako 2000-  
2004rako Etxebizitza Planean zehaztutakoak baino 200 gutxiago)
- Prezio tasatuko 500 etxebizitzaren eraikuntza sustatzea (Nafarroako 2000-  
2004rako Etxebizitza Planean zehaztutakoak baino 50 gehiago).

Nahiko kezagarria da aurrekontuetan Planak aurreikusitako helburuen %94,3  
betetzeko gastua baino ez jasotzea.

Eta kezagarriagoa da egiteak are urrunago geratzea. Etxebizitza Planak  
2001erako 2.250 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zuen, baina bakarrik 1.593  
eraiki ziren, hau da, Planean adierazitakoaren %70,8. Defizit handiena prezio tasa-  
tuko etxebizitzetan gertatu zen, Planean zehaztutakoen %17,25 baino ez baitzen  
bete.

Nafarroari buruzko azken datuen arabera, 2000n 17.374 etxebizitza behar ziren,  
eskaintza 8.769koa zelarik. Horrez gain, etxebizitza aldatu beharrean zeuden nafa-  
rrek euren sarreraren %28,15 gastatu behar zuten etxebizitza ordaintzen, eta lehe-  
nengo etxebizitza erosi beharra zutenek, %47. Batez besteko salmenta-prezioa

aldaketa egin beharra zuten pertsonak ordaindu ahal zuten prezioa baino %50 garestiagoa zen, eta lehenengo etxebizitza behar zutenek ordaindu ahal zutena baino %44,7 garestiagoa. Alokairuen prezioa ere etxebizitza aldatu behar zuten biztanleen ahalmena baino %22,8 handiagoa zen, eta lehenengo etxebizitza behar zutenena baino %25,5 handiagoa.

Hala ere, dirudienek, Nafarroako Gobernuak ez dago oso kezkatuta etxebizitza arazoaz; izan ere, Etxebizitza Plana prestatzeko azterlana egin zuen arren 2001ean, ez du azterlan hori eguneratzeko besterik egin. Euren diotenez, etxebizitza merkatu librea oso urrun dago biztanleen aukeretatik eta, beraz, aztertzerik ere ez du merezi.

## **7. OINARRIZKO ERRENTA**

Nafarroako Gobernuak 2001ean bezala mantendu nahi du Oinarrizko Errenta (Legebiltzarrean 2000n erabaki zenaren ildoan). ELAren iritziz, egoera onartezina da eta, horregatik, Oinarrizko Errentaren zenbatekoak handitzea galdatzen dugu.

Beharrak zehazteko, ohiko bizi-unitatea osatzen duten 18 urtetik gorako kopurua aintzat hartzen duen eskala erabiltzea proposatzen dugu.

Hona hemen eskala:

- 18 urtetik gorako lagun bakarra duten unitateentzat, oinarrizko errenta Lanbide arteko Gutxienezko Soldataren (LGS) bestekoa izango da.
- Gainerako kide bakoitzeko, LGSaren %50 erantsiko zaio oinarrizko errentari.

## **8. KONKLUSIOA**

Nafarroako Gobernuak, azken urteetan jokatzeko aritu izan den ildo berdinarri jarraituz agertzen zaigu. Era honetara, aurten ere, Balio Erantsi Gordinarekiko (BEG) 0,32 puntutako jaitsiera aurkezten du 2003rako, bai gastu publiko eta bai sarreretan, beste urte batez, gizartean sektore publikoak duen pisuaren jaitsieraren joera baieztatuz.

Sarrerei dagokienez, gainera, zeharkako zergen diru bilketan %9,19ko igoera aurreikusten du, zerga zuzenen %1,56aren aldean, zerga sistemaren atzerakortasuna handituz. 2003rako aurrekontu proiektuak ez du azaltzen bestalde, Nafarroako gizarteko errenta enpresari, profesional eta artistikoetan ematen den iruzur fiskal izugarriarekin bukatzeko inolako asmorik, era horretara, beronen laguntzan parte hartuz (31 pertsona soilik aritzen dira ikuskaritzan).

Gobernuaren politika atzerakorraren beste adibide bat, aurrekontu orekatua zor publikorik jaulki gabe planteatzea da, horretarako gizarte beharrezanean erantzun



gabe utziz, gainera, ekonomi hazkunde motelago baten testuinguruan. Adibide gisa, agiri honetan bi ikus daitezke:

1. Etxebizitzan gastuaren %13,41ko jaitsiera. Gainera, atal honetan aipatu behar da, gobernuak ez duela azterketa bat ere egiten etxebizitzaren egoerarekiko, oso arbuigarria dena, etxebizitza bat eskuratzeak gizartearen zati garrantzitsu bati eragiten baitio (bereziki gazteei) .
2. Beharrian oinarritzeko erantzuteko gai ez den oinarritzeko errenta baten kantitatea ez igotzea.

